



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilak 14

Vitoria-Gasteiz, 14 de abril de 2020

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK ZAPOREAK ERAKUNDEARI LAGUNTZA EMANGO DIO GREZIAN DAUDEN ERREFUXIATUEI ARRETA HUMANITARIOA ESKAINTZEKO

Eusko Jaurlaritzak ZAPOREAK euskal GBEari babesa emango dio Grezian errefuxiatuta dauden herritarrei arreta eta laguntza emateko egiten ari den lanean. Laguntzak gaur egin den Gobernu Kontseiluaren ikus-onetsia jaso du. 200.000 euroko laguntza hori Giza Eskubide, Bizikidetzeta Lankidetzaren Idazkaritzaren bitartez kudeatuko da.

Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartearen helburua da elikagaiak, azpiegitura eta materiala eskaintzea Grezian errefuxiatuak dauden pertsonen premiak betetzeko, eta pertsona horien alde eta horientzako lanean ari diren erakundeekin elkarlanean aritzea.

Gaur egun euskal GKE honek bere lan solidarioa Moria-ko (Lesbos uhartea) iheslari-esparruan burutzen jarraitzen du, Europa osoan bizitzen ari garen eta Greziako uharteetan ere eragina duen osasun-larrialdiko eta konfinamenduko egoera bizi arren. Testuinguru bereziki gogor horretan, erakundearen lana zaurgarritasun-maila handia duten eta eremu horretan errefuxiatuak dauden pertsonengana zuzendua dago. ACNUR agentziaren datuen arabera, 2.500 lagun hartzeko prestatutako eremu horretan 18.342 pertsona bizi dira.

Zehazki, Zaporeak erakundearen proiektuaren bidez, egunero, errefuxiatuentzako janari osasuntsuko eta nutritiboko 2.020 errazio bermatu nahi dira. Errefuxiatu horietako gehienak Rowing Together GKEaren zaintzapean ospitaleko arreta jasotzen duten gaixotasun kronikoa duten pertsonak, haurdun dauden emakumeak eta sexu-indarkeriaren biktimak dira. Banaketa Team Humanity GKEk Moriako eremuaren ondoan duen espazio seguruan egiten da.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandatarien (ACNUR) datuen arabera, 2019aren amaierara arte 125.472 errefuxiatu iritsi ziren, horietatik % 47 Greziako uharteetara heldu ziren. Aurten, orain arte, 13.774 lagun iritsi dira Europara; horietatik 6.127 lagun Greziara heldu dira eta 1.853 Lesbosera.

Lehendakaritza

MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO PROIEKTUETARAKO 112.500 EUROKO LAGUNTZA ONARTU DA

Aurten, Eusko Jaurlaritzak 112.500 euro bideratuko ditu Memoria Historikoa berreskuratzeko proiektuak finantzatzeko. Laguntza horien deialdia GOGORA Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren ebazpenean jaso da, gaur, Gobernu Kontseiluaren oniritzia izan duena.

Laguntza honen bitartez, Gerra Zibilaren biktima guztiak eta bere ondoren iritsi zen erregimen diktatorialaren errepresio politiko, sozial eta kulturalari aurre egin zieten pertsonak eta euren familiak betirako ohoratu eta gogoratu nahi dira.

Memoria historikoaren arloan, 1936tik 1977ra Euskal Autonomia Erkidegoan demokraziaren eta askatasunaren alde borroka zabaltzeko, ikertzeko eta berreskuratzeko, aurten, memoria historikoaren inguruan diharduten elkarteek eta fundazioek burutuko dituzten proiektuak diruz lagunduko dira.

Zehazki, honako jarduketa hauek sustatzeko bideratuko da laguntza:

- a) Gerra zibilaren eta diktaduraren errepresioarekin, erbestearekin, eta balio demokratikoen errealitate eta egoerarekin loturiko gertaerak eta prozesuak berritzera bideraturiko ikerketak egitea.
- b) Errepresioarekin, erresistentziarekin eta gizarte demokratikoa eraikitzearekin zerikusia duten pertsonak eta gertakizunak oroitzeko edo omentzeko jarduerak.
- c) Elkarteak antolatutako hedapen-jarduerak: jardunaldiak, mintegiak, aldi baterako erakusketak eta liburuxkak.

Lehendakaritza

ONARTU DA GAZTEMUNDU 2020 PROGRAMAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA, EUSKAL SUKALDARITZARI BURUZKOA

Gobernu Kontseiluak Gaztemundu programaren 2020ko urteko deialdia onartu du, Euskal Etxeetako gazteek egonaldi bat egin dezaten Euskadin.

Programa horretarako 60.000 euro bideratu dira, atzerriko Euskal Etxeetako 18 eta 35 urte bitarteko 15 gaztek, gehienez, egonaldi bat egin dezaten Euskadin. Egonaldi horren datak zeintzuk izango diren coronavirus Covid 19 pandemiaren bilakaeraren menpean dago.

2020ko urteko edizioan, Gaztemundu programako partaideen prestakuntza Euskal sukaldaritzari buruz izango da. Hala, adituek gidatutako prestakuntza-programan parte hartuko dute aurten hautatutakoek.

Egonaldian, bestalde, beste jarduera batzuk izango dituzte, euskal jatorria duten gazteek aukera izan dezaten harremana izateko erakundeekin, elkarrekin eta Euskadin bizi eta lan egiten duten pertsonekin, baita Euskadiko eta kanpoko gazteen arteko harremanak sortzeko ere.

Programan parte hartzeko interesa dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, deialdia EHAAan argitaratu ondoren.

Gaztemundu programa Basque Country Estrategiaren baitakoa da –estrategia horren helburuetako bat da Euskadi kanpoan proiektatzea– eta 1996an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadiren egungo errealitatearen alde guztiak ezagutarazteko eta belaunaldi berriei Euskal Etxeetako bizitza aktiboan integratzeko aukera emateko.

Ordutik hona, 800 bat lagunek hartu dute parte programa horretan (gehienak Argentinakoak) eta horietako asko orain Euskal Etxeetako zuzendaritzetako kideak dira edota ardura postuak betetzen dituzte.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAKO ZERBITZU JURIDIKO NAGUSIA ARDURATUKO DA, HEMENDIK AURRERA, EUSKAL TRENBIDE SAREAREN DEFENTSAZ

- Araubide Juridikoaren sailburuordeak izendatutako Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiko letraduak arduratuko dira laguntza juridikoa koordinatzeaz
- Hitzarmena 2021eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak 10.000 euro sartuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, jasotako laguntza juridikoagatik

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du “*Laguntza juridikoa emateko hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusia) eta Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea (ETS) zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren artekoa*”.

[Ekainaren 2ko 7/2016 Legearen, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Antolatzeakoaren](#) 2.3 artikuluan ezartzen da Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiak baliabide egokiak dituela laguntza juridikoa emateko bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari bai Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei, bai eta, halaber, merkataritza-sozietateei, fundazio publikoei, partzuergoei eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten gainerako erakundeei ere. Horrela, gaur onartu den eta izaera administratiboa duen hitzarmenari jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoak aholku emango dio Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari, “*zuzenbide-arloan, eta defentsa- eta ordezkaritza-zerbitzua dagokion jurisdikzioaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari ematen zaion baldintza beretan*”.

Araubide Juridikoaren sailburuordeak Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoan jardunean dagoen letradu bat edo bat baino gehiago izendatuko du laguntza juridiko hori koordinatzeko. Gainera, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak haiekin lankidetzan jardungo du auzitan dauden interesak ahalik eta ongien defendatzeko.

Era berean, testuan jaso da Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak ahalmena izatea abokatutzako profesional batek eta, hala dagokionean, bereziki horretarako izendatutako prokuradore batek aholkatua, ordezkatua eta defendatua izateko. Kasu horretan uko egingo dio Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoaren laguntza juridikoari. Gainera, Zerbitzu Juridiko Nagusiaren laguntza juridikorik ez du izango itunpeko erakundearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren edo Instituzioanalaren artean interes kontrajarriak daudenean.

INDARRALDIA

Gobernu Kontseiluan gaur onartu den hitzarmena indarrean egongo da izenpetzen den egunetik 2021eko abenduaren 31ra arte, eta, aldeek berriaz adostuta, gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da. Horrez gainera, hitzarmena aldatu ahal izateko berriaz ados jarri beharko dute aldeek, eta edozein unetan zabaldu edo murriztu ahal izango da hitzartutako laguntza juridikoa, aldeek berriaz adostu ondoren.

Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridikoaren eta Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen arteko hitzarmenean ezarri da ordaina 10.000 eurokoa izango dela, eta zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian sartuko da lauhilekoen amaieran, urtarrileko, maiatzeko eta iraileko lehenengo bost egun naturaletan.

JARRAIPEN BATZORDEA

Sinatzaileetako bakoitzaren ordezkari banak osatutako jarraipen-batzorde bat arduratuko da hitzarmenaren exekuzioa eta sinatzaileek hartutako konpromisoak jarraitu, zaindu eta kontrolatzeaz. Gainera, hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen arazoak ere argituko ditu.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILAK GAZTEENTZAKO 25 APARTAMENTSU ETA ALOKATZEKO 15 ETXEBIZITZA SOZIAL ERAIKIKO DITU OIARTZUNEN, UDALAREKIN IZENPETUTAKO HITZARMENAREN ONDOREN

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolak proposatuta, Gobernu Kontseiluak Oiartzungo Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena eman du. Hitzarmen horri esker, herrian 25 zuzkidura-bizitoki eta alokatzeko 15 etxebizitza sozial eraiki ahal izango dira.

Promozioa Elizalde auzoko ELI-3A eta ELI-3I hiri-azpierrezuetan egikarituko da. Zehazki, Urkabe Baita izenez ezagutzen den jauregi-etxea osorik birgaitu eta handituko da. 6.059 m²-ko azalera baten gainean, guneretan 20 eta 25 zuzkidura-bizitoki artean eraikitzea aurreikusi da. Aldi baterako etxebizitza-formula bat (gehienez bost urte), bereziki egokia premia bereziak dituzten kolektiboentzat eta gazteentzat. Era berean, aurreko eraikinetik hurbil dagoen 6.124 m²-ko partzela batean, alokatzeko 15 etxebizitza sozial —dagozkien garajeak eta eranskinak barne— izango dituen bizitegi-eraikin berri bat egitea aurreikusi da.

Izenpetutako hitzarmenaren arabera, Oiartzungo Udalak, sustapen hori gauzatzeko, hirigintza-antolamenduan beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta doan eta kargarik gabe, bertan existitzen den eraikina eta lurak —hauetako batzuk jabetza pribatukoak dira— Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari entregatzeko konpromisoa hartzen du. Bestalde, Sailak bere gain hartzen ditu eraikuntza-proiektuen erredakzioa, zuzkidura-bizitokiak ezartzeko Urkabe Baita eraikina berritzeko eta handitzeko lanak, etxebizitza-eraikin berriaren eraikuntza eta ingurunearen urbanizazio-lanak.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak bere gain hartutako inbertsioa guztira 5 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da; horietatik 4 milioi euro proiektuen erredakzioari eta bi sustapenen egikaritze-lanei dagozkie eta milioi 1 euro urbanizazioa egiteko, bai urbanizazio orokorra bai bi eraikinei lotutako urbanizazioa.

Hitzarmenaren arabera, Oiartzungo biztanleek lehentasuna izango dute zuzkidura-bizitoki eta gizarte-alokairuko etxebizitza horiek eskuratzeko. Hala ere, esleipen-prozeduran araudi orokorrean finkatutako kupoen sistema errespetatu beharko da. Udalak etxebizitza horietako batzuk ordezkotako bizitokia emateko edo premia espezifikoei erantzuteko erreserbatzea proposatu ahal izango du.

Hezkuntza

UPV/EHUrekin SINATUTAKO KONTRATU-PROGRAMAREN 2020ko FINANTZIAZIOA 1,4 MILIOI EUROAN HANDITZEA

- **Kopuru berria *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da, unibertsitate publikoan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2020 urtean “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programarako Euskal Herriko Unibertsitateari emandako finantzazioa 1.470.000 euroan handitzea.

1,4 milioi euroko kopuru hau, *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da. Programa hauek “*Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa*” Kontratu-Programan dagoeneko jasorik dauden ekintzen osagarri gertatzen dira. Diru-kopuru hau, honela gelditzen da banaturik, programa bakoitzeko:

- “*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” programa: 1.320.000 euro
- “*Gazte ekintzailtza*” programa: 150.000 euro

Gaur onartu den finantzazio handitzea, Kontratu-Programak sinatzean dagoeneko 2020 urterako unibertsitate publikoarentzat onartu zen 34,7 milioi euroko kopuruari gehitzen zaio.

“*Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa*” programaren helburua da unibertsitate-ikasketetako azken kurtsuan dauden ikasleek edo eta unibertsitate titulu ofizial baten jabe direnek trebetasun handiagoa lortzea; izan ere, profil konkretu bati buruzko gaitasunei lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak lortuko dira, lan-esperientzia bat egiaztatzeko aukera honen bidez. Programa honetan parte hartuko duten ikasleek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute enpresa batean. Aurrez, unibertsitateak hitzarmena sinatua izan beharko du enpresa horrekin. Unibertsitatea ikasle horien jarraipena egiteaz arduratuko da. Programa hau gehienez UPV/EHUko 660 ikasleri zuzenduko zaie.

Bestalde, “*Gazte ekintzailtza*” programari dagokionez, kultura ekintzailea unibertsitateko ikasleen artean aktibatzea du helburu. Horretarako, laguntza bat emango die eremu horretan sor daitezkeen enpresa-ekimenei eta enplegu berriak sor ditzaketen autonomo eta mikroenpresen ekimenei. Programa hau gehienez unibertsitate publikokoko 25 proiektuentzat izango da.

2019-2022 aldirako Kontratu-Programak

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak hiru Kontratu-Programa sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzarekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022):

- “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Programa-Kontratua.
- “Bikaintasun-ikerketa” Programa-Kontratua.
- “Prestakuntza eta Nazioartekotzea” Programa-Kontratua.

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeak baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

Unibertsitateekin sinatutako “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programak, besteak beste, unibertsitateen eta enpresen eta beste erakunde batzuen arteko harremana sustatzeko jarduerak egitea aurreikusten dute. Beraz, gorago azaldutako programa horiek dagoeneko Kontratu-Programetan aurreikusten zirenen osagarri dira.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 834.400 EURO BIDERATU DITU IKASTETXE PUBLIKOETAKO ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILEEN PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, lankidetzahitzarmen bat baimentzeko erabakia hartu du gaurko bileran. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza eta Lanbide Hezitako Ministerioaren arteko hitzarmen horren bidez, 2020-2021 ikasturtean Euskadiko ikastetxe publikoetan arituko diren elkarrizketa-laguntzaileen jarduera arautzen da.

Datorren ikasturterako, hitzarmen hau tarteko, Hezkuntza Sailak 149 elkarrizketa-laguntzaile jasotzea eta finantzatzea aurreikusten du, bere menpeko ikastetxe publikoetan, batez ere Bigarren Hezkuntzakoetan eta Hizkuntza Eskola Ofizialetan, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza sustatzea helburu hartuta. Hezkuntza Sailak finantzatuko dituen 149 elkarrizketa-laguntzaileen artean, 134 ingeles hizkuntzakoak izango dira, bederatzi frantsesekoak eta sei alemanekoak.

Hezkuntza Sailak 834.400 euro bideratzen ditu 2020-2021 ikasturtean laguntzaile hauen egonaldia finantzatzeko. Hilero jasoko duten diru-laguntzaz gain, Elkarrizketa-laguntzaileen Programan parte hartuko duten pertsonen istripu-poliza ere izango dute, eta baita erantzukizun zibila ere, programaren barruko egonaldiak irauten duen bitartean.

Ahokotasuna indartzea

Elkarrizketa-laguntzailea graduatu berria edo azken ikasturteko unibertsitate-ikaslea izan ohi da bere jatorrizko herrialdean. Honi ez zaio irakasle titular baten erantzukizunik esleitzen. Hortaz, ez da irakaskuntzan bera bakarrik aritzen. Beraz, elkarrizketako laguntzaileek irakasleei lagundu besterik ez dute egiten atzerriko hizkuntzako eskoletan, eta euren berariazko eginkizunak, batik bat, ikasleen ahozko trebetasunak indartzera daude bideratuta. Astean 12 orduz ematen dituzte eskolak, irakasle titularrak lagunduta; baina inoiz ez bakarrik.

Irakasleak koordinatuta eta gainbegiratuta, laguntzaileari, besteak beste, eginkizun hauek eman ahal izango zaizkio: elkarrizketako berariazko praktikak, irakasleen prestakuntza, hizkuntza eta kultura ikasteen oinarritutako materialen prestaketa edo euren herrialdeko kultura irakastea.

Hezkuntza

EAEtik KANPO KOKATUTAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOekin HITZARMENA SINATZEA, IKASLEEN *PRACTICUM*a GAUZATU DEZATEN

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea Hezkuntza Sailaren eta EAEtik kanpoko lurralde-eremuko unibertsitate publikoen artean, Euskadin erroldatuta dauden eta aipatutako unibertsitateetan irakaskuntzara bideratutako ikasketak egiten ari diren ikasleek *practicuma* egin ahal izan dezaten, funts publikoekin sostengatutako euskal ikastetxeetan.

Aipaturiko *practicuma* edo praktikaldia honako ikasketa hauek burutzen ari diren ikasleei zuzendua dago: Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu-tituluak; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasle-lanbideetan aritzeko gaitzen duen master-titulua; edo Lanbide Heziketako irakaskuntzarako eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa ikasten ari diren ikasleei.

Unibertsitateek tutoreak eta koordinatzaileak izendatu beharko dituzte, bai eta praktika-programaren arduradun bat ere. Era berean, praktiketako ikasleak hartzen dituzten ikastetxeek ere tutore eta koordinatzaileak identifikatuko dituzte euren irakasleen artean.

Oraingo honetan hitzarmena Euskaditik kanpo dauden unibertsitateekin baimendu den bezala, 2019an lankidetzeta-hitzarmenak gauzatu ziren –helburu berberarekin- Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateekin ere.

***Practicum* fasea**

Practicum deritzon fasea, irakasle izateko prestatzen ari den ikasleak ikastetxe batean egiten duen praktikaldia da. Helburu hauek ditu praktikaldiak: eskarmentua lortzea bakoitzaren espezialitateari dagozkion gaien plangintza zein ebaluazioa egiteko eta eskolak emateko; irakasle-lanerako ahozko eta idatzizko adierazpena ongi menderatzen dutela egiaztatzea; eta ikaskuntza eta bizikidetzeta erraztuko dituen giroa sustatzeko beharrezko gizarte-trebetasunak menderatzea.

Praktika hauek egiten dituen tartean, ikastetxean esleitu dioten irakasle tutorearen tutoretza jasotzen du ikasleak, eta unibertsitateak ezarritako irizpideen arabera ebaluazioa ere izaten du. Tutoreaz gain, prestakuntza-zentro bakoitzean koordinatzaile bat ere izaten da. Azken hau, praktikak koordinatzeaz gain, horien garapen egokiaz ere arduratuko da. Praktiketako ikasleek ez dute irakasle tutoreari dagozkion irakaskuntza-jarduerarik egiten, eta kolaboratzaile gisa hartu behar dira hezkuntza-jardueretan.

Lana eta Justizia

JAURLARITZAK JARDUERA-GIDA BAT PRESTATU DU EAEko LANTEGIETAN JARDUERA MODU SEGURUAN ABIARAZTEKO

[EAEko lantegietan jarduera modu seguruan abiarazteko jarduketa-gidaren](#) xedea da langileen osasuna bermatzea da eta lantegiak berriro zabaltzeko prozesuetan laguntzeko helburua du, sor daitezkeen desadostasunak azkar konpontzeko OSALANen, Lan Agintaritzaren eta Laneko Ikuskatzaitzaren zerbitzuak eskura dituztela gogoratu.

Gida honen koordinazio operatiboa Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak bere gain hartzen du, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 8. artikulua bidez emandako eskuduntzen arabera. Izan ere, berari dagokio lan-harremanen eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan gizarte-eragileek lortutako akordioak sutatzea eta babestea.

Lan eta Justiziako sailburu Maria Jesus San Josek CONFEBASKi eta Euskadin ordezkaritza nagusia duten erakunde sindikalei (ELA, LAB, CCOO eta UGT) eskerrak eman dizkie Euskadiko lantokietan jarduera modu seguruan abiarazteko helburua duen Gida osatzeko egin dituzten ekarpenengatik. “Prestatu dugun Gidaren bidez —azpimarratu du San Josek— gure lantokietan lanera itzultzea, Covid-19tik babesteko langileen osasunerako berme guztiekin egitea bilatzen da”.

Gida honen koordinazio operatiboa gauzatzeko, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetzak, funtzionalki, OSALANen —abendua 21eko 7/1993 Legearen 1. artikulua arabera laneko arriskuen prebentzioaren arloan politikak kudeatzeaz arduratzen den erakunde gisa— eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren —enpresetan laneko arriskuen prebentzioa betearazteko dituen eskuduntzengatik— laguntza izango du, beste agintaritza batzuen —osasun-agintaritzak, adibidez— eskuduntzen kalterik gabe.

Presidencia

EL GOBIERNO AYUDARÁ A ZAPOREAK PARA LA ATENCIÓN HUMANITARIA A LAS PERSONAS REFUGIADAS EN GRECIA

El Gobierno Vasco ayudará a la ONG vasca ZAPOREAK en su labor de atención y ayuda a la población que se encuentra refugiada en Grecia. La ayuda ha recibido el visto bueno del Consejo de Gobierno celebrado hoy y asciende a 200.000 euros, que serán gestionados a través de la Secretaría de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación.

Zaporeak Solidarios tiene como objetivo proporcionar alimentos, infraestructura y material para cubrir las necesidades de las personas refugiadas en Grecia y colaborar con las distintas organizaciones que trabajan por y para estas personas.

En la actualidad esta ONG vasca continúa desarrollando su labor solidaria en el campo de refugiados de Moria (isla de Lesbos), a pesar de la situación de emergencia sanitaria y confinamiento que se está viviendo en toda Europa, y que afecta también a las islas griegas. En este contexto, especialmente adverso, su trabajo se centra en personas que presentan un alto grado de vulnerabilidad y que se encuentran refugiadas en este campo, donde, de acuerdo con datos de ACNUR, 18.342 personas conviven en un lugar habilitado para recibir a 2.500.

En concreto, el proyecto de Zaporeak va dirigido a garantizar un total de 2.020 raciones diarias de comida sana y nutritiva a personas refugiadas, en su mayoría, con enfermedades crónicas que reciben atención hospitalaria, y mujeres embarazadas y víctimas de violencia sexual que son atendidas por la ONG Rowing Together. El reparto se realiza en el espacio seguro que la ONG Team Humanity dispone anexo al campo de Moria.

De acuerdo con los datos del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados (ACNUR), el año 2019 cerró con un total de 125.472 llegadas, de las cuales el 47% lo hizo a las islas griegas. En lo que va de año, 13.774 personas han llegado a Europa, de las cuales, 6.127 llegaron a Grecia y 1.853 a Lesbos.

Presidencia

APROBADA AYUDA POR 112.500 € A PROYECTOS DE RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA

El Gobierno Vasco destinará este año 112.500 € a la financiación de proyectos específicos dirigidos a la recuperación, investigación y difusión de la memoria histórica y de la lucha por la democracia y la libertad durante el periodo comprendido entre 1936-1977 en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La convocatoria de estas ayudas se recoge en la resolución del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos-GOGORA que hoy ha recibido el visto bueno del Consejo de Gobierno.

El objetivo de esta ayuda es honrar y recuperar para siempre a todas las víctimas de la Guerra Civil y a las personas que hicieron frente a la represión política, social y cultural del régimen dictatorial que la sucedió, y con ellas, a sus familias.

En materia de memoria histórica, se subvencionarán aquellos proyectos dirigidos a la recuperación, investigación y difusión de la lucha por la democracia y la libertad en la Comunidad Autónoma Vasca entre 1936 y 1977, que lleven a cabo este año tanto las asociaciones y fundaciones dedicadas a la memoria histórica.

En concreto, las ayudas se dirigirán a promover:

- a)** Actuaciones de investigación dirigidas a la reconstrucción de hechos y procesos relacionados con la represión de la guerra civil y la dictadura, con el exilio, y la realidad y la situación de los valores democráticos.
- b)** Actuaciones conmemorativas o de homenaje de personas y de acontecimientos relacionados con la represión, la resistencia y la construcción de la sociedad democrática.
- c)** Actuaciones de difusión que organicen los petitionarios: jornadas, seminarios, exposiciones temporales y folletos.

Presidencia

APROBADA LA CONVOCATORIA PARA PARTICIPAR EN EL PROGRAMA GAZTEMUNDU 2020, QUE ESTARÁ DEDICADO A LA GASTRONOMÍA VASCA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria para 2020 del programa Gaztemundu, destinado a los jóvenes de las Euskal Etxeak que deseen realizar una estancia en Euskadi.

De este programa, al cual se han destinado 60.000 euros, podrán beneficiarse hasta un máximo de 15 personas de entre 18 y 35 años de los centros vascos del exterior que realizarán una estancia de 15 días en Euskadi. La determinación de las fechas de esta estancia está supeditada a la evolución de la pandemia del coronavirus covid-19.

La capacitación de las personas que van a participar en 2020 en Gaztemundu girará en torno a la formación en gastronomía vasca, para lo cual participarán en un programa de capacitación preparado por expertos.

La estancia incluye, además, actividades a través de las cuales jóvenes de origen vasco tienen la oportunidad de mantener contactos con instituciones, organizaciones y personas que trabajan y viven en Euskadi, así como contactos entre jóvenes de dentro y fuera de Euskadi.

Los interesados en participar en el programa podrán presentar sus solicitudes en la Secretaría General de Acción Exterior de Lehendakaritza, una vez se publique la convocatoria en el BOPV.

El programa Gaztemundu se engloba dentro de la Estrategia Basque Country que busca entre otros objetivos la proyección de Euskadi en el exterior y fue creado en 1996 por el Gobierno Vasco, con el doble fin de dar a conocer la realidad actual de Euskadi en todas sus vertientes y permitir la integración de las nuevas generaciones en la vida activa de sus centros vascos.

Desde entonces, han participado en este programa cerca de 800 personas jóvenes (la mayoría procedentes de Argentina) muchas de las cuales conforman las actuales directivas de las Euskal Etxeak o bien ocupan puestos de responsabilidad.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL SERVICIO JURÍDICO CENTRAL DEL GOBIERNO VASCO LLEVARÁ, A PARTIR DE AHORA, LA DEFENSA DE EUSKAL TRENBIDE SAREA

- Las personas letradas del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco designadas por el Viceconsejero de Régimen Jurídico serán las encargadas de coordinar la asistencia
- El convenio tendrá vigencia hasta el 31 de diciembre de 2021 y Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ingresará 10.000 euros en la Tesorería General del País Vasco por la asistencia jurídica recibida

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Convenio de asistencia jurídica entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco) y el ente público de derecho privado Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea (ETS)*”.

La “[Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco](#)” establece en su artículo 2.3 que el Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco dispone de los medios adecuados para prestar asistencia a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a otras administraciones de la Comunidad Autónoma, así como a las sociedades mercantiles, fundaciones públicas, consorcios y demás entidades con participación del Gobierno Vasco. Así, según el convenio aprobado hoy, que es de naturaleza administrativa, el Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco asesorará a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea en “*derecho y defensa y representación ante cualesquiera jurisdicciones en los mismos términos en los que ésta se presta a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco*”.

El Viceconsejero de Régimen Jurídico designará una o más personas letradas del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco en activo para que coordinen dicha asistencia jurídica. Además, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea colaborará con ellas para la mejor defensa de los intereses en litigio.

El texto también recoge la posibilidad de que Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea se reserve la facultad de ser asesorada, representada y defendida por una persona profesional de la abogacía, y en su caso, un procurador o procuradora especialmente designados al efecto. En ese caso renunciará a la asistencia jurídica por parte del Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco. Además, la asistencia jurídica del Servicio Jurídico Central no se prestará cuando exista contraposición de intereses entre la entidad convenida y la Administración General o Institucional de la Comunidad Autónoma.

VIGENCIA

El convenio aprobado hoy en el Consejo de Gobierno estará vigente desde su firma hasta el 31 de diciembre de 2021, prorrogable, mediante acuerdo expreso de las partes, hasta un plazo que no supere los cuatro años de vigencia. Además, el acuerdo sólo se podrá modificar por acuerdo expreso de las partes y en cualquier momento se podrá ampliar o reducir la asistencia jurídica convenida siempre que exista acuerdo expreso de las partes.

El acuerdo entre el Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco y Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea establece que la cuantía de la contraprestación será de 10.000 euros que se ingresarán en la Tesorería General del País Vasco a cuatrimestres vencidos en los cinco primeros días naturales de los meses de enero, mayo y septiembre de cada año.

COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Una comisión de seguimiento compuesta por un representante de cada uno de los firmantes se encargará del seguimiento, vigilancia y control de la ejecución de convenio y de los compromisos adquiridos por estos. Además, resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

VIVIENDA EDIFICARÁ 25 APARTAMENTOS PARA JÓVENES Y 15 PISOS SOCIALES PARA ALQUILER EN OIARTZUN, TRAS EL CONVENIO FIRMADO CON EL AYUNTAMIENTO

El Consejo de Gobierno, a propuesta del consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Iñaki Arriola, ha autorizado la firma de un convenio con el Ayuntamiento de Oiartzun que permitirá la edificación en la localidad de hasta 25 alojamientos dotacionales ADAs) y 15 pisos sociales para alquiler.

La promoción se llevará a cabo en las Subáreas urbanas ELI-3A y ELI-3I del barrio de Elizalde. Concretamente, supone la rehabilitación integral y ampliación de la casa-palacio conocida como Urkabe Baita. Sobre una superficie de 6.059 m², se prevé la construcción en este espacio de entre 20 y 25 alojamientos dotacionales, una fórmula de vivienda transitoria (no más de cinco años) especialmente adecuada para jóvenes y colectivos con necesidades especiales. Así mismo, en una parcela próxima de 6.124 m², se contempla la edificación de un nuevo edificio residencial que acogerá 15 viviendas sociales para alquiler, con sus garajes y anejos.

Según el convenio suscrito, el Ayuntamiento de Oiartzun se compromete a llevar a cabo los cambios necesarios en el ordenamiento urbanístico para llevar a cabo la promoción y a entregar al Departamento de Vivienda, de forma gratuita y libre de cargas, el edificio existente y los terrenos, parte de los cuales son de propiedad privada. Por su parte, el Departamento asume la redacción de los proyectos constructivos, la rehabilitación-ampliación de Urkabe Baita para acoger las ADAs, la edificación del nuevo edificio de viviendas y la urbanización de su entorno.

La inversión que asume el Departamento de Vivienda se estima en un total de 5 millones de euros, de los cuales 4 millones corresponden a la redacción de los proyectos y a las obras de ejecución de las dos promociones, y 1 millón de euros para la urbanización, tanto la general como la vinculada a las dos edificaciones.

Según el convenio, las personas residentes en Oiartzun serán los destinatarios preferentes de los alojamientos dotacionales y de las viviendas de alquiler social, si bien en el procedimiento de adjudicación se deberá respetar el sistema de cupos establecido en la normativa general. El Ayuntamiento podrá proponer la reserva de alguna de dichas viviendas para realojos o para atender necesidades específicas.

Educación

INCREMENTO DE 1,4 MILLONES DE EUROS EN LA FINANCIACIÓN DE LA ANUALIDAD 2020 DEL CONTRATO-PROGRAMA SUSCRITO CON LA UPV/EHU

- **Esta cuantía se destinará al desarrollo de los programas *Transición del mundo educativo al laboral* y *Emprendimiento juvenil* en la universidad pública**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, incrementar en 1.470.000 euros la financiación concedida a la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para la anualidad 2020 del Contrato-Programa “*Universidad-Empresa-Sociedad*”, suscrito con la citada universidad.

Esta cuantía se destinará al desarrollo de los programas denominados “*Transición del mundo educativo al laboral*” y “*Emprendimiento juvenil*”, que tras esta ampliación vienen a complementar las acciones que ya se incluyen en el Contrato-Programa “*Universidad-Empresa-Sociedad*” suscrito. La cuantía de 1.470.000 euros queda distribuida de la siguiente manera, para cada uno de los programas:

- Programa “*Transición del mundo educativo al laboral*”: 1.320.000 euros
- Programa “*Emprendimiento juvenil*”: 150.000 euros

Este incremento de la financiación hoy autorizado se suma a los 34,7 millones de euros ya aprobados para la universidad pública para la anualidad 2020, en el momento de la suscripción de los Contratos-Programa.

El objetivo del programa “*Transición del mundo educativo al laboral*” al que se destina parte de esta financiación, es el de lograr una mayor capacitación del alumnado que está en el último curso de educación universitaria o en posesión de un título oficial universitario, con la adquisición de conocimientos, habilidades, destrezas y actitudes relacionadas con las competencias relativas a un perfil profesional concreto, por medio de esta oportunidad de acreditar una experiencia laboral.

El alumnado participante en el programa realiza una estancia de tres meses en una empresa con la que la universidad habrá firmado previamente un acuerdo. La universidad realizará un seguimiento del alumnado que participe en el programa. Este programa irá dirigido a un máximo de 660 alumnos y alumnas de la UPV/EHU.

Por su parte, el programa “*Emprendimiento juvenil*” busca activar la cultura emprendedora entre el alumnado de las universidades, ofreciendo un apoyo a las iniciativas empresariales que puedan surgir en esos ámbitos, y apoyando

aquellas iniciativas de nuevos autónomos y microempresas que puedan generar nuevos empleos. Este programa irá dirigido un máximo de 25 proyectos de la universidad pública.

Contratos-Programa 2019-2022

En julio del pasado año 2019, y dentro del ámbito del Plan del Sistema Universitario 2019-2022, el Departamento de Educación suscribió tres Contratos-Programa con cada una de las tres universidades del Sistema Universitario Vasco, con una financiación que supera los 200 millones de euros (200.086.186 €) durante cuatro años (2019-2022):

- Contrato-Programa de Universidad-Empresa-Sociedad
- Contrato-Programa de Investigación de Excelencia
- Contrato-Programa de Formación e Internacionalización

Los Contratos-Programa constituyen un instrumento de financiación de las universidades, financiación condicionada a la consecución de objetivos de mejora de la docencia, de la investigación y de la gestión acordados entre cada universidad y el Gobierno Vasco. Se trata de instrumentos de política universitaria que transfieren medios económicos extraordinarios a los centros de educación superior, condicionando su efectiva percepción al cumplimiento de objetivos estratégicos acordados entre las partes.

Los Contrato-Programa “Universidad-Empresa-Sociedad” suscritos con las universidades contemplan, entre otras, la realización de actuaciones orientadas a promover la relación de las universidades con empresas y otras organizaciones. Por tanto, los programas arriba descritos complementan los ya previstos en estos Contratos-Programa.

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 834.400 EUROS PARA EL PROGRAMA DE AUXILIARES DE CONVERSACIÓN EN CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS

El Consejo de Gobierno ha acordado, a propuesta de la consejera de Educación, autorizar la suscripción de un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación y el Ministerio de Educación y Formación Profesional, para la dotación de auxiliares de conversación a centros educativos de Euskadi, durante el próximo curso 2020-2021.

Mediante este convenio el Departamento de Educación prevé financiar y disponer de 149 auxiliares de conversación en sus centros públicos durante el próximo curso, fundamentalmente institutos de Educación Secundaria y Escuelas Oficiales de Idiomas, con el objetivo de impulsar y fomentar en esos centros el aprendizaje de las lenguas extranjeras. De los 149 auxiliares que financiará el Departamento de Educación, 134 serán auxiliares de conversación en lengua inglesa, nueve en lengua francesa y seis en lengua alemana.

El Departamento de Educación destina 834.400 euros para la financiación de las estancias de este personal durante el curso 2020-2021. Además de la ayuda económica mensual que percibirán, las personas incluidas en el Programa de Auxiliares de Conversación serán beneficiarias de una póliza de accidentes, así como de responsabilidad civil para el titular, mientras dure su estancia en el programa.

Refuerzo a la oralidad

El o la auxiliar de conversación es un graduado reciente o un estudiante universitario de último curso en su país de origen, al que no se le atribuyen las responsabilidades propias del profesor o profesora titular, por lo que no imparte la docencia en solitario. Así pues, los auxiliares de conversación únicamente asisten al profesorado titular en clase de lengua extranjera, y sus funciones específicas van encaminadas fundamentalmente a reforzar las destrezas orales del alumnado. Imparten clases durante 12 horas semanales acompañados por el profesor o profesora titular, pero nunca en solitario.

Bajo la coordinación y supervisión del profesor o profesora, se le podrán asignar al auxiliar tareas como: las prácticas específicas de conversación, la formación del profesorado, la elaboración de materiales que se centren en el aprendizaje de la lengua y la cultura, o la enseñanza de la cultura de su país.

Educación

SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LAS UNIVERSIDADES PÚBLICAS UBICADAS FUERA DE LA CAPV, PARA LA REALIZACIÓN DEL *PRACTICUM*

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la suscripción de un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación y las universidades públicas de ámbito territorial distinto de la CAPV, para que el alumnado empadronado en el País Vasco y que curse estudios conducentes a la docencia en las citadas universidades, pueda realizar el *practicum* en centros vascos sostenidos con fondos públicos.

El citado *practicum*, o periodo de prácticas, está dirigido al alumnado que cursa los títulos de Grado en Educación Infantil y en Educación Primaria, del título de Máster que habilita para el ejercicio de las profesiones de profesor o profesora de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas, así como de la formación pedagógica y didáctica exigida para la docencia en Formación Profesional.

Las universidades firmantes deberán designar personal tutor y coordinador, así como una persona responsable del programa de prácticas. De igual manera, los centros educativos que acogen al alumnado en prácticas identificarán el personal tutor y coordinador entre su profesorado.

Al igual que en esta ocasión se suscribe un convenio con las universidades ubicadas fuera de Euskadi, el pasado año 2019 se materializaron –con el mismo objeto– los convenios de colaboración con las universidades que conforman el Sistema Universitario Vasco.

Fase de *practicum*

La fase de *practicum* es el periodo en el que el alumno o alumna que se está preparando para ejercer la docencia realiza sus prácticas en un centro escolar. Esta fase tiene como objetivos facilitar la adquisición de experiencia en la planificación, la docencia y la evaluación de las materias correspondientes a la especialización; acreditar un buen dominio de la expresión oral y escrita en la práctica docente; y dominar las destrezas y habilidades sociales necesarias para fomentar un clima que facilite el aprendizaje y la convivencia.

Durante la realización de las prácticas en el centro de formación el alumnado es tutelado por el profesorado tutor asignado en el centro, y evaluado de acuerdo con los criterios establecidos por su centro universitario. Además del tutor o tutora, en cada centro de formación en prácticas existirá un coordinador o coordinadora, que velará por el adecuado desarrollo de las prácticas en el centro formador. El alumnado en prácticas no realiza actividades docentes

correspondientes al profesorado tutor, y debe ser considerado como un colaborador en las actividades educativas.

Trabajo y Justicia

EL GOBIERNO ELABORA UNA GUÍA DE ACTUACIÓN PARA EL ARRANQUE DE ACTIVIDAD DE FORMA SEGURA EN LOS CENTROS DE TRABAJO DE LA CAPV

[La Guía de actuación para el arranque de actividad de forma segura en los centros de trabajo de la CAPV](#) tiene por finalidad garantizar la salud de las personas trabajadoras y su objetivo es acompañar los procesos de reapertura de los centros de trabajo, recordando la disponibilidad de los servicios de OSALAN, la Autoridad Laboral y de la Inspección de Trabajo para solventar con rapidez las discrepancias que pudieran suscitarse.

La coordinación operativa de esta Guía la asume la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco, en virtud de las atribuciones conferidas por el artículo 8 del Decreto 84/2017, de 11 de abril, por cuanto le compete impulsar y apoyar los acuerdos alcanzados por los agentes sociales en el marco de las Relaciones Laborales y de Seguridad y Salud Laboral.

La Consejera de Trabajo y Justicia, María Jesús San José, ha agradecido a CONFEBASK y a todas las organizaciones sindicales más representativas de Euskadi (ELA, LAB, CCOO y UGT) las aportaciones realizadas a la Guía para el arranque y actividad de forma segura de los centros de trabajo de Euskadi. “La Guía que hemos elaborado –ha destacado San José– pretende que la vuelta a la actividad en nuestros centros de trabajo se realice con todas las garantías para la salud de las trabajadoras y trabajadores ante el Covid-19”.

Para el ejercicio de la coordinación operativa de esta Guía, la Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social contará funcionalmente con OSALAN, en cuanto organismo encargado de gestionar las políticas en materia de prevención de riesgos laborales de acuerdo al artículo 1 de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, y con la Inspección de Trabajo y Seguridad Social por sus competencias en el cumplimiento de la prevención de riesgos laborales en las empresas, sin perjuicio de las competencias de otras autoridades, como las sanitaria.